



Ander Izagirre
Kazetaria

Etxetik botatzen gaituzten ahotsak

Bidaia idazleek -eta fikziozko zenbait pertsonaia bidaiarik- askotan galdetzen diete euren buruei zergatik abiatzen diren mundura. Orduan bidaiari-
rien «aitzakien baratzea» lantzen dute -John Stein-
becken hitzak dira-, baratze oparoa beti. Haurtzar-
roan atlasek txunditutako bidariak daude,
eskualde fantastikoak ezagutzeko ametsa gauzatu nahi dute-
nak; planetari buelta ematea norbere barnera iristeko bide mo-
tzena dela uste dutenak; esploratzeko grina duten gazteak eta
bizitutakoa hobeto ulertzeko beharra sentitzen duten zaha-
rrak -askotan pertsona bera dira, biografiaren hasierako eta
amaierako muturrak lotu nahi dituztenak-. Gogo sutsua senti-
tzen dute; zentzumenak, adimena eta bizitzeko indarrak po-
tentzia osoan. Edo beldurra, asperdura, depresioa.

«Gizakiek betidanik entzun dituzte ahotsak, erosotasuna uz-
tera bultzatzen dituzten ahotsak, eta inoiz ez dute argi izan zer
egin; alegia, ez dakite ahots horien deiari entzungor egitea ko-
meni zaien, ala bidaietan ere etxeko gau amaiezinen isiltasun
tragiko berbera aurkituko ote duten», idatzi zuen Enri-
que Vila-Matasek 'El viaje vertical' nobelan.

"Moby Dick" abentura handia ere horrela hasten da, ospa egiteko beharra senti-
tzen duen pertsonaiaarekin: «Dei nazazue Ismael. Duela urte batzuk, patrikan diru gutxi edo batere ez neukala, eta lehorrean nire interesa piztuko zuen ezer gabe, nabi-
gatzera abiatuko nintzela pentsatu nuen. Malenkonia uxatzeko eta zirkulazioa ho-
betzeko daukadan modua da. Keinu triste bat jartzen duda-
la konturatzen naizen bakoit-
tzean, nire ariman azaro he-
ze eta euritsu bat hedatzen denean, zerraldo denda ba-
ten aurrean gelditzen naize-
nean (...), itsasora lehenbaile-
hen irteteko garaia dela ulertzen dut. Pistola eta bala-
ren ordezkia da niretzat (...). Jabetzen ez diren arren, ia
pertsona guztiek izan dituzte horrelako sentimenduak ozeanoarekiko». Natalia Ginzburgek, "Las pequeñas virtudes" liburuan, baleaza-
learen arrazoiak ulertzen di-
tu: «Erru sentsazioaz, paniko sentsazioaz, isiltasunaz sen-
datzeko, bakoitzak bere mo-

dua bilatzen du. Batzuk bidaiatzera doaz. Herrialde berriak eta jende desberdina ezagutzeko grina horren atzean, norberaren fantasmak uxatzeko itxaropena dago: planetako punturen ba-
tean gurekin hitz egin dezakeen pertsona topatzeko itxaropen sekretua».

Bidaia frakasoa dela diote batzuek: arazoei aurre egiteko gai izan ez eta ihesa aukeratzea, kilometro mordo egin arren etxean geneukan horma beraren kontra talka egiten duen ihes beti frakasatua. «Gizakiaren desgrazia guztiak bere gelan lasai gelditzeko ezintasunetik datoz», idatzi zuen Blaise Pascalek.

Cees Nooteboom, aldiz, haserretu egiten da Pascalen esaldi hori behin eta berriz gogoratzen diotelako. «Bidaiariak eten-
gabe jaso behar ditu etxean gelditzen direnen galderak», ida-
tzi zuen "Hotel Nómada" liburuan. «Elkarriketetan behin eta berriz galdetzen didate gauza bera, zergatik bidaiatzen duzu hainbeste, ihes egiteko modu bat al da? Neure buruarengan-
dik ihesean nabilela adiera-
zi nahi didate. Nortasun diaboliko, patetiko, hauskor bat irudikatzen dute, itsaso-
ra edo basamortura bultza-
tzen nauena. Egiazko eran-
tzunak ikasketa eta meditazioarekin zerikusia du, jakin-minarekin eta ha-
rridurarekin, baina ez da hain ikusgarria».

«Baudelairen arabera, bi-
daiariak ilusio faltsuz bete-
ta abiatzen dira», dio Noote-
boomek. «Bidaiek 'jakituria mikatza' ematen diete, mundua txikia eta monoto-
noa dela aurkitzen dutelako, eta euren bizitzaren isla gordina bueltatzen dielako: 'Izu-laborrizko oasi bat, ba-
samortu aspergarri baten erdian'. Horrela ikusita, errealitateari ihes egiten diona etxean gelditzen dena dela esan daiteke, egunero-
ko errutinari lotuta, ezin duelako jasan bidaiak ematen duen jakituria mikatz hori. Niri berdin zait heroia nor den, garrantzitsuena da norberak bere arimaren aginduak betetzea, kosta lain kosta».

•



Bidaiariaren «aitzakien baratzea» oparoa da beti. GAUR8